# Labiaga
## IKASTOLA

Haur Hezkuntza,
Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza

Altzate 12 • Tel-Fax: 948 63 01 72
Eztegara 32 • Tel: 948 63 15 58
Tel. Mugikorra (WhatsApp): 608 677 446
P.K. 38.780
**31780 BERA · NAFARROA**
e-mail: bera@ikastola.eus
**www.labiagaikastola.eus**

# Ikastola

**Labiaga Ikastola** gizarte-ekimenetik sortutakoa da eta gizartera zabalik dago, euskal izaera eta kulturarekin konprometitua. Horregatik, euskara eta euskal kulturan ardaztutako eleaniztasuna eta kultura artekotasuna ditu muin.

Ikastola bazkidez osatutako kooperatiba da, nortasun juridiko propioa duena eta hezkuntza eta antolaketa eredu propioak dituena. Guraso, irakasle, ikasle ohi eta laguntzaileek osatzen dute. Ikastolak bere curriculum propioa jarraitzen du, Euskal Curriculuma, Ikastolen kolektiboak sortu eta erabakitakoa. Horregatik, Ikastola **AUTOGESTIO ETA LANKIDETZAREN** eredua da.

Hauek dira Ikastolen eta Labiaga Ikastolaren ezaugarriak:

## Hezkuntza eredu propioa

- Euskal Curriculuma.
- Konpetentzietan oinarritutakoa.
- Aitzindaritza Pedagogikoa.
- Prestakuntza eta aholkularitza.

## Herritarra

- Herritik sortuak eta herriarentzat.
- Kooperatiba.
- Auzolana eta elkartasuna.
- Prestakuntza eta aholkularitza.

## Euskalduna

- Euskal kultura.
- Euskal Herritik mundura.
- Euskaran ardaztutako eleaniztasuna.

## Eraldatzailea

- Bikaintasuna ikasleen hobekuntzan.
- Ikasmaterialgintza propioa.
- Ikerketan garapenean eta berrikuntzan dihardu.

# Funtzionamendu eredua

**BATZARRA**
Batzar Nagusia organo gorena da. Erabakimena du eta bazkide guztien topalekua da. Bertan, denen artean hartzen dira garrantzizko erabakiak.

**BATZORDEA**
Funtzionamendu organoa da. Batzordea guraso eta irakasleen ordezkaritzak osatutako taldea da. Eginkizun ugari dute eta horiek guztiak, azpi lantaldeen bitartez bideratzen dira. Kooperatiba barruko eginkizunak ez ezik, kanpokoetan ere eragiten du: herri mailako ekimenetan eta Nafarroako eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartekoetan.

**KLAUSTROA**
Irakasleek osatutako taldea da. Hezkuntza eta pedagogia dute helburutzat, asteroko bilera hauek.

# Guraso taldeak

**1-GURASO TALDEA**
Guraso eta irakasleek osatutako lantaldea da. Herri mailako jardueretan, Berako euskara eta kultur batzordeetan akuilu lana egiteko ardura du.

**2- EKONOMIA TALDEA**
Ikastolaren bideragarritasun ekonomikoa lantzen duen taldea da. Batzordekide, guraso eta ikasle ohiek osatzen dute.

**3- EUSKARA TALDEA**
Euskarari Ikastolan nahiz herrian susperraldia emateko asmoarekin sortutako taldea da. Ikasle ohi, guraso eta irakasleek osatzen dute.

**4- KOMUNIKAZIO TALDEA**
Ikastolan egiten diren edota eginen diren hainbat ekintzen berri gurasoei eta Bera-tarrei emateaz arduratzen den taldea da..

**5-LARUN MENDI TALDEA**
Haur, gazte eta helduen artean mendizaletasuna bultzateko eta inguru naturala giro onean ezagutzeko asmoz sortutako taldea.

**6-MANTENIMENDU TALDEA**
Bi eraikinetako instalakuntzen egokitze eta mantenuaz arduratzen da.

**7-TALO TALDEA**
Jai eta ospakizun desberdinetan taloak eginez eta salduz, ikastolaren ekonomiari bultzada bat emateko sortutako taldea.

# Hezkuntza eredua

**Gure Ikastolan Ikastolen Elkarteak sortutako proiektuak ditugu lanerako ardatz. Proiektu hauen ikasmaterialak erabiltzen dituzte gure ikasleek 3 urtetan hasi eta 14 urte bitarteko 3 etapetan. Euskal Curriculumean oinarrituta daude eta etengabeko berritze eta egokitze prozesuan daude.**

## 1 OINARRIZKO PROIEKTU PEDAGOGIKOAK

### 1-KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Labiaga Ikastolako Haur Hezkuntzako etapan Konfiantzaren Pedagogian oinarritzen gara. Pedagogia berritzailea da eta Irakaslearen ohiko egitekoa eraldatzen da: ikaslearen bidelagun izanez, haren gaitasunak, beharrizanak eta zailtasunak deskubritzen lagunduko dio.

Haurra bera bere buruarekin eta ingurukoekin seguru sentitzea da gure helburu nagusiena. Segurtasun horrek ematen dion konfiantzaz bere ezagutzeko gogoa, eta ondorioz jakintza, handituko dituelako.

Labiaga Ikastolan interakzioa bultzatuz lan egiten dugu, ttikiak handienak imitatuz ikasiko du; handiek berriz, beraien laguntza eta jakinduria eskainiko diete ttikiei.

### 2-TXANELA

Txanela Proiektua Lehen Hezkuntzako ikasmateriala da. Lehen Hezkuntza etapa zabala denez (6-12 urte) eta ziklo bakoitzak bere zeregina duenez.

hezkuntza prozesuan, hauen arteko eta beste etapekiko loturak zainduta curriculum eskaintza koherente, bateratu eta egokia eskaintzeko asmotan sortu da. Proiektuaren ezaugarriak honako hauek dira:

**a)** Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua: Gaitasunen garapenean oinarritua. Ikaskuntza esanguratsua eskaintzen duena eta ikasle aktiboaren bila dabilena. Haurraren etengabeko motibazioa bultzatzen duena. Aniztasuna errespetatzen duena. Balioen eta jarreren hezkuntzarekin konprometitua.

**b)** Euskal Herri osorako egina: Jatorriz euskaldun nahiz erdaldun diren haurrak euskaraz eta curriculum bateratuan hezteko proposamena.Curriculumaren euskal dimentsioari garrantzia ematen diona. Herrialde guztietako erreferentziak jaso eta euskalkien presentzia ziurtatuko duena. Euskalduntasunetik abiatuta, kultura unibertsalerako bidea egingo duena. Irizpide metodologikoak: Globalizazioa.  Ikuspegi eraikitzailea. Ikaslearen kudeaketarako taldekatzeari

eta elkarrekintzari buruzko deskribapenekin. Denboraren, espazioaren eta baliabideen ustiaketarako orientabideekin. Gurasoekiko harremanak bideratzeko proposamenekin.

## 3-EKI PROIEKTUA

Ikastolen Elkarteak sortutako proiektu eta material hau, DBHko etaparako egina dago. Konpetentzietan oinarritutako eredua jarri dugu martxan. Ikasmaterial hauek badute hirugarren ezaugarri bat ere, integrazioaren pedagogia bultzatzen dutela, hau da, ikasleak benetako egoera esanguratsuen aurrean jartzen dituela, eta irtenbideak aurkitzen ikasten dutela, gelan ikasitakoa gero egoera berrietan baliatzeko. Ikasleek testu liburuaz gain ordenagailua ere erabiliko dute unitate didaktikoekin lan egiteko garaian. Proiektu honen helburua, ikasleek konpetentzietan lan egitea da. Zer da konpetentzietan lan egitea? Ikasle bat konpetente dela ziurtatzeko, ikasi dituen edukiak egoera erreal batean modu eraginkorrean aplikatu behar ditu.

Euskal Curriculumak 5 konpetentzia kontuan hartzen ditu:

- **Pentsatzen eta ikasten ikasi.**
- **Komunikatzen ikasi.**
- **Elkarrekin bizitzen ikasi.**
- **Norbera izaten ikasi.**
- **Egiten eta ekiten ikasi.**

## 4-KIVA
## Ongi etorri KiVa Ikastolara!

KiVa ikerketan oinarritutako eskola-jazarpenaren aurkako programa da, Finlandiako Turkuko Unibertsitateak sortu eta garatua, Finlandiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren finantzaketaz.KiVa-ren eraginkortasuna frogatuta geratu da eskala handiko ausazko proba kontrolatu batean.Finlandian, KiVa oso programa estimatua da:Lehen Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeen %90 KiVa-n erregistratuta daude eta programa ezartzen ari dira.



## 2 CURRICULUMA OSATZEKO PROIEKTU OSAGARRIAK

### ELEANITZ ENGLISH/ FRANTSESA

3 urtetik aitzin hasten dira ingelesaren ikas-irakats prozesuarekin. Gainera, HHn, asteazken arratsaldetan Ingelesa ekintza osagarri gisa ere lantzeko aukera eskaintzen da. Ikastolen Elkarteak ekoiztutako material propioa erabiltzen dugu, British Councilen errekonozimendu eta saria eskuratutakoa. LH 5. mailan eta ikasturte hasieran, 15 eguneko Ingeles murgiltzea egiten da FIE programaren bitartez.

Commenius programarekin DBHtik aurrera Europako ikastetxeetako ikasleekin Ingelesa sendotzeko bidaiak eta trukeak egiten dira. **LH4. mailatik hasita frantsesa ikasgai moduan eskaitzen da**. DBH1. mailan eta ikasturte hasieran, 15 eguneko frantses murgiltzea egiten da.

### E-TWINNING

E-Twinning+elkartrukea.
Proiektu honen bitartez, kultura, hizkuntza, gizarte...desberdinen arteko elkartrukea bultzatzen da, eta ikasleen autonomia indartzen da arlo desberdinetan..

### OPTIMIS

Behatu, identifikatu, erlazionatu, sailkatu eta sintetizatu gaitasunak eta tresnak (organigramak, mapa kontzeptualak, ...) lantzen dituen proiektua.

### POSITIVITIES

Proiektu honetan psikologia positiboaren bitartez, ikasleak motibatzeko eta bizitza ikuspegi positiboaz ikusteko jarduerak eta teknikak lantzen dira.

### ADIMEN LATERALA ETA ARTISTIKOA:

Ikastolan, sormena eta hezkuntza artistikoa indartzeko aukera errealitate bihurtu dugu, etapa guztien artean lotura izanik eta espezialistek landuta.

Haurraren egoera pertsonala kontuan hartuta, bere sormena eta adierazpenaren garapenean gidari gara. Proiektu honetan, egoera berdina abiapuntutzat hartuz, emaitza ezberdinak balioetsiz, norberaren izaera errespetatzen eta indartzen da.

### SORMEN

Haurraren sormena garatzeko ardatz garrantzitsuetako bat da. Haurraren gaitasuna eta adierazpena azaleratzeko tresna da. Norberaren izaera eta sentimenduak konfiantzaz garatzea, haurraren zoriontasuna eta autonomia ekarriko ditu. Nor garen jakin eta besteei erakustea da helburua.

### ARTE HEZKUNTZA

Umeen alderdi plastikoaren lanketa.

### MUSIKAGINTZA

3 urtetik aitzin musika eta erritmoa espezialistarekin lantzeko aukera eskaintzen da ekintza osagarri gisa. Asteazken arratsaldetan.

### DRAMATIZAZIOA

Gorputz adierazpenaren lanketa egiten da eleaniztasun ikuspegia kontuan hartuta bereziki Haur Hezkuntzatik hasita.

### EUSKARAZ BIZI

Euskararen biziberritzea eta normalizazioa bultzatzea helburu du Ikastolako komunikazio eremu guztietan eta Berako herrian.

### ANIZTASUNAREN TRATAERA

Ikasleen behar bereziekiko atentzio pertsonalizatua.

### JUUL

Irakurtzeko zaletasuna induzitu eta bultzatu.

### BERA EZAGUTU
Haur Hezkuntzan, ortziral arratsaldetan, Herria ezagutu.

### BERTSOLARITZA
LH 4, 5 eta 6. mailetan astean ordubeteko bertsolaritza saioa Nafarroako Bertsozale Elkarterekin elkarlanean.

### OREKAZ
Gorputz heziketan ikasle bakoitzaren garapena eta erritmoa errespetatzen dira. **EZ DA KONPETIBITATEA BULTZATZEN.**

### HIZKUNTZ PROIEKTUA
Ikastolan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa da.

## 3 ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

Orientazio departamentuak ikastolako hezkuntza prozesuari orientazio zerbitzua eskaintzen dio. Orientazio departamentuak hainbertze egiteko ditu arlo pedagogiko, psikologiko eta bokazionalarekin lotura dutenak. Departamentu honek eskaintzen du:

### -IKASLEENTZAT:
Hizkuntzaren ahoskerarekin beharra duten ikasleentzat laguntza. Zailtasunak daudenean, zailtasun horien diagnostikoa egitea, tratatzea eta gidaritza iraunkorra. Konfiantzazko giroa. Hurbiltasuna. Konfidentzialitatea.

### -IRAKASLEENTZAT:
Hezkuntza prozesuen inguruko erantzunak bilatzea, aniztasunaren aitzinean jarrera arduratsua izatea, irakaskuntza-ikas-irakats prozesuan moldatze egokiagoak lantzea, irakasleak aholkatzea, beharra duten ikasleen curriculum egokitzapenak prestatzea, tutoretza programetan lankidetza,...

### -GURASOENTZAT:
Diagnostiko zerbitzua, beharren araberako diagnostikoa egin ahal izateko. Lankidetza, aniztasun egoera bizi duten familiekin hezkuntza prozesuan arrakasta lortzeko bide egokienak adostuz, baita nortasun alderdietan ere. Logopedia zerbitzua. Konfiantza giroa eta hurbiltasuna.



## 4 PRESTAKUNTZA PLANA

### IRAKASLEENTZAT
Proiektu hauek guztiek inplikatzen duten berariazko prestakuntzaz gain, euskararen hobekuntza eta teknologia berrietan eguneratzea da urteroko erronka.

### GURASOENTZAT
**GURASO ESKOLA**
Urtean zehar, arratsaldetan, gurasoentzat interesgarriak diren hitzaldi eta tailerrak antolatzen ditugu.

# Zerbitzuak

**GOIZ TXOKOA ETA ZAINTZA**
Haurra goizeko 8:00etan Ikastolara ekartzeko aukera. Haur Hezkuntzan zaintza zerbitzua 12:40etatik eskaintzen da.

**JANTOKIA**
Astelehenetik ortziralera, asteazkenak barne. Ikasleen beharrei egokitutako menuak. Ikastolan bertan sukaldatutako jakiak. Zaindua. Ekaina eta irailan ere zerbitzua mantentzen da.

**LOKULUXKA TXOKOA**
Bazkaldu ondotik siesta txikia egiteko aukera eskaintzen da.

**WEB ORRIA, BLOGAK eta FACEBOOK**
Ikastolak sortutako web orria (**www.labiagaikastola.eus**), blogak eta Facebook ikasle eta familien euskarri bihurtzen dira.

**Facebook: https://www.facebook.com/public/Labiaga-Ikastola**
**Blog: http://labiagaikastola.blogspot.com.es/**

# Herriko ekintzak eta kirolak

Labiaga Ikastolak, gurasoek eta ikasleek herriko ekintza eta kiroletan parte har dezaten lan egiten du, Berako Elkarteek proposatutako jarduerei laguntza eta babesa emanez:

**Berako Musika Eskola, Manttale, Mugaz Gain, Gure Txokoa, kirolak (saskibaloia, futbola, pilota, etab.), Lurraren eguna, Olentzero, kabalgata, inauteriak, Korrika.**

# Eskolaz kanpoko ekintzak

## IKASLEENTZAT

### INGELESEKO UDALEKUAK

Atzerriko hizkuntzan sakontzeko lagungarria den tresna osagarria eskaintzen dugu udaro. Uztailean antolatzen da.

### ANTZERKIA

Aditua den irakasle batek gidatuta antzerkigintza lantzen dute ikasleek: teknikak, adierazpena...

### BERTSOLARITZA

Bertsolari baten gidaritzapean bertsolaritzaren mundura hurbiltzeko antolatulako jarduera.

### FRANTSESA

Lehen Hezkuntzatik goitiko ikasleentzat bideratutako tailerra. Ukipen-hizkuntzara lehen hurbilketa egiteko asmoarekin antolatuta dago.

### HIP HOP - FUNKY

Arte mugimendu honen dantza adierazpena lantzen da espezialista baten laguntzarekin. LH eta DBHko gaztetxoentzat bideratutako jarduera da.

### BERTZELAKO TAILERRAK

Urtean zehar gurasoek ikasleekin elkarlanean proposatutako eta gidatutako hainbat tailer eskainiko da: ipuin kontaketa, margoketa, lehen sorospen ikastaroa, euskal dantzak... Saio hauek ez dute iraupen zehatzik izanen.

## GURASOENTZAT

### ZUMBA

Ikasturtean zehar dantza eta aerobikaren arteko kirol diziplina berria ezagutarazteko tailerra da.

### BERTZELAKO TAILERRAK

Urtean zehar gurasoek proposatutako eta gidatutako hainbat tailer eskainiko da: sukaldaritza, margoketa,...

## FAMILIENTZAT

### ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Euskal kulturari errotutako ekimenak indartu: Euskararen Nazioarteko eguna, Olentzero, Santa Ageda eguna, Inauteri astelehena (Zingar-Arraultze),...











# Labiaga
## IKASTOLA

Educación Infantil,
Primaria y Educación
Secundaria Obligatoria

Altzate 12 • Tel-Fax: 948 63 01 72
Eztegara 32 • Tel: 948 63 15 58
Tel. Mugikorra (WhatsApp): 608 677 446
P.K. 38.780
**31780 BERA · NAFARROA**
e-mail: bera@ikastola.eus
**www.labiagaikastola.eus**

# Ikastola

**Labiaga Ikastola** surge de la iniciativa popular y tiene sus puertas abiertas a la sociedad beratarra. La Ikastola tiene carácter euskaldun como base de la educación que ofrece. Promueve el plurilingüismo, con el euskara como eje educativo. Trabaja la cultura vasca, punto de partida de la interculturalidad que promueve.

La Ikastola es una Cooperativa formada por socios/as con identidad jurídica propia y con modelos de organización y de educación propios. La conformamos padres y madres, personal docente y no docente, alumnado y ex alumnos/as. La Ikastola es una comunidad educativa autónoma que sigue su currículo propio, el Currículum Vasco, creado y decidido por el colectivo de ikastolas. Por eso, las ikastolas somos modelo de **AUTOGESTIÓN Y TRABAJO EN EQUIPO**. De igual manera, somos un movimiento colectivo, basado en un modelo común que queremos construir.

A continuación las características de las ikastolas y en particular de Labiaga Ikastola:

## Modelo educativo propio

- Basada en el currículum vasco y en competencias.
- Pionera en pedagogía.
- Recibe una formación y una asesoría constantes.

## Del pueblo

- Surgió del pueblo y para el pueblo.
- Es Cooperativa.
- Su modo de trabajo se basa en el trabajo en común y en la solidaridad.

## Euskaldun

- Tiene un modelo plurilingüe conel euskera como núcleo.
- Se abre desde Euskal Herria al mundo.
- Tiene como eje la cultura vasca.

## Innovadora

- Entiende la excelencia como la mejora de todo el alumnado.
- Se emplea en investigación, desarrollo e innovación.
- Posee material educativo propio, nuevo e innovador.

# Modelo de funcionamiento

### ASAMBLEA GENERAL

La **Asamblea general** es el órgano superior. Tiene poder de decisión y es el foro de todos/as los/as socios/as. En dicha Asamblea se toman entre todos/as las decisiones más importantes.

### LA JUNTA RECTORA

Es el principal órgano de funcionamiento. Está formada por padres y madres y profesores/as. Desarrolla múltiples funciones que lleva a cabo mediante subcomisiones. Además de ejecutar las labores propias de la cooperativa, también promueve y participa en labores de carácter social, tales como actuaciones populares y las propias del colectivo de Ikastolas de Nafarroa y de Euskal Herria.

### CLAUSTRO

Lo forman el colectivo de profesores/as. Tienen como objetivo la educación y la pedagogía. Se reune todas las semanas.

# Grupos de padres-madres

### 1-GRUPO DE MADRES Y PADRES

Tiene como objetivo participar en actividades y grupos de trabajo populares, tales como la comisión de cultura y la comisión de euskara de Bera.

### 2-GRUPO DE ECONOMÍA

Su objetivo es trabajar la viabilidad económica del proyecto educativo.

### 3-GRUPO DE EUSKARA

Grupo formado por ex-alumnos/as, padres-madres y profesores/as con la intención de fomentar el uso del euskara, tanto en la Ikastola como en su entorno.

### 4-GRUPO DE COMUNICACIÓN

Tiene como objetivo dar a conocer, tanto a las familias como al pueblo de Bera, el trabajo que se realiza en la Ikastola.

### 5-GRUPO DE MONTAÑA “LARUN MENDI TALDEA”

Grupo creado con la intención de impulsar entre, niños/as, jovenes y adultos/as la afición por el montañismo así como el conocimiento del entorno natural en buena armonía...

### 6-GRUPO DE MANTENIMIENTO

Tiene como objetivo el mantenimiento y mejora de las instalaciones de los dos edificios que conforman Labiaga.

### 6-GRUPO DE TALOS

Grupo creado para dar un empuje económico a la Ikastola haciendo y vendiendo talos en diferentes fiestas y celebraciones.

# Modelo educativo

**La Ikastola Labiaga está totalmente comprometida con los proyectos del colectivo de ikastolas, Ikastolen Elkartea. Nuestros/as alumnos/as emplean los materiales docentes de dicho colectivo en las tres etapas, desde los 3 años hasta los 14. Estos materiales están basados en el Curriculum Vasco y se encuentran en un proceso continuo de renovación y adecuación.**

## 1 PROYECTOS PEDAGÓGICOS

### 1-PEDAGOGÍA DE LA CONFIANZA

En la etapa de Educacion Infantil de la Ikastola Labiaga, trabajamos tomando como referencia la Pedagogía de la Confianza. Es una pedagogía innovadora que cambia la forma de trabajar tanto de los/las alumnos/as como de los/las profesores/as: el/la profesor/a la guía al/la alumno/a en su proceso de descubrimiento y desarrollo de sus capacidades, así como a la hora de hacer frente a las dificultades.

El objetivo principal es que el /la niño/a se sienta seguro/a consigo mismo/a, con las personas del entorno y con el entorno mismo. Esta seguridad hace que aumente la curiosidad y porconsiguiente, el conocimiento.

En la Ikastola se trabaja a menudo por medio de la interacción. Los/las pequeños/as aprenden de los/las mayores y viceversa. En el caso concreto de la etapa de Infantil, los/las más pequeños/as aprenden de los/las mayores imitandoles y los/las mayores a su vez aprenden de los/las menores ofreciendoles su conocimiento y ayuda.

### 2-TXANELA

El proyecto Txanela constituye el material de Educación Primaria. Puesto que la Educación Primaria (6-12 años) constituye una etapa amplia y que cada ciclo desempeña su propio papel en el proceso educativo, se ha creado con el objetivo de desarrollar una oferta curricular coherente, unificada y adecuada, atendiendo a la relación entre estas dos etapas y a la que tienen estas con respecto a las demás. Las características del proyecto son las siguientes:

**a)** Proyecto que abarca al/la niño/a en su totalidad: Está basado en el desarrollo de las capacidades. Busca el aprendizaje significativo y el alumnado activo. Respeta la diversidad. Se encuentra comprometido con la educación en valores y actitudes.

**b)** Propone educar en euskara y sobre la base del currículum unificado a todos/as los/las niños/as sean vascoparlantes o castellanoparlantes. Centra su atención en la dimensión vasca del currículum. Recogerá referencias de todas las regiones y garantizará la presencia de todos los dialectos de la lengua vasca.

Tomando como punto de partida la condición vasca, se abre camino hacia la cultura universal.

**c)** Criterios metodológicos: Globalización. Perspectiva constructiva. Descripciones sobre la agrupación e interacción del alumnado para su gestión. Orientaciones para la utilización del tiempo, el espacio y los recursos. Propuestas para las relaciones con los padres y madres.

## 3-EKI

Este proyecto y material creado por la Federación de Ikastolas se desarrolla en la Educación Secundaria Obligatoria (ESO). Éste pone en marcha el modelo de enseñanza basado en las competencias. Estos materiales tiene una tercera característica; impulsa la pedagogía de la integración. Esto es, pone a los/las alumnos/as ante situaciones reales significativas y aprenden a buscar soluciones, aplicando lo aprendido en clase en situaciones nuevas. Los/las alumnos/as dispondrán de libro de texto y trabajarán a su vez con el ordenador. Con este nuevo material, se pretende desarrollar el trabajo de los/las alumnos/as en competencias. ¿Qué es trabajar en competencias? Para decir que un alumno/a es competente, tiene que aplicar los contenidos aprendidos en una situación real eficazmente.
Las cinco competencias del curriculum vasco son:

- **Aprender a pensar y a aprender.**
- **Aprender a comunicarse.**
- **Aprender a convivir.**
- **Aprender a ser uno mismo.**
- **Aprender a hacer y a actuar.**



## 4-KIVA

Bienvenido/a la Ikastola KIVA
KIVA es un programa desarrollado a partir de la investigación, cuyo objetivo es combatir el acoso escolar. Creado y desarrollado por la Universidad de Turku, Finlandia. Con la financiación del Ministerio de Educación y Cultura del Gobierno Finlandés, la efectividad del programa ha quedado demostrada, tras el trabajo realizado durante años, en encuestas controladas realizadas con una muestra a gran escala. En Finlandia el programa KIVA es muy valorado: el 90% de los centros de enseñanza primaria están registrados y lo tienen implantado.

## 2 PROYECTOS COMPLEMENTARIOS AL CURRICULUM

### ELEANITZ ENGLISH / FRANCÉS

Los/las alumnos/as empiezan con el aprendizaje del Inglés a partir de los 3 años. También se trabaja esta lengua como actividad extraescolar a partir de los 3 años. Utilizamos material producido por el colectivo de Ikastolas, reconocido y premiado por British Council. En 5° de primaria se realiza una inmersión al Inglés (FIE) a principio de curso y durante 15 días.En la ESO, el alumnado participa en el programa Commenius, con el cual tiene la oportunidad de viajar a Europa y relacionarse con otros/as alumnos/as. **A partir de 4º de primaria se imparte la asignatura de Francés**. En 1° de la ESO se realiza una inmersión al Francés (FIE) a principio de curso y durante 15 días.

### E-TWINNING

E-twinning + intercambio:
Proyecto con el que se fomenta el intercambio de distintas culturas, idiomas, sociedades... y refuerza la autonomia de los/las alumnos/as en diversos aspectos.

### OPTIMIS

Se trabajan las capacidades: observar, identificar, relacionar, clasificar y sintetizar. Para ello se realizan organigramas, mapas conceptuales,....

### POSITIVITIES

En este proyecto se trabaja con la psicología positiva, con el objetivo de motivar a los/las alumnos/as e inculcar un pensamiento y punto de vista positivo en el día a día por medio de técnicas y actividades...

### INTELIGENCIA LATERAL Y ARTÍSTICA

Hemos hecho realidad la posibilidad de fortalecer la educación artística y la creatividad. Se trabaja en todas las etapas, teniendo relación entre ellas y por medio de especialistas. Teniendo en cuenta la situación personal del/la alumno/a, somos guías en el desarrollo de su creatividad y expresión. Partiendo de una misma situación, se dan por válidas diferentes soluciones, respetando y fortaleciendo así su personalidad.

### CREA

Este proyecto es uno de los ejes importantes para desarrollar la creatividad del/la niño/a. Es la herramienta para trabajar las capacidades y la comunicación. Desarrollar la personalidad y los sentimientos en confianza, conlleva mayor autonomía y felicidad. El objetivo es saber quiénes somos y demostrárselo a los demás.

### EDUCACIÓN ARTÍSTICA Y PLÁSTICA

Se trabaja la capacidad plástica de cada alumno-a.

### MÚSICA

Trabajamos la música y el ritmo con especialistas a partir de los 3 años y como actividad extraescolar los miércoles a la tarde.

### DRAMATIZACIÓN

Se trabaja específicamente la expresión corporal desde educación infantil.

### EUSKARAZ BIZI

Este proyecto pretende la normalización y promoción del euskara en todos los ámbitos escolares así como en el pueblo de Bera.

### ATENCIÓN A LA DIVERSIDAD

Atención personalizada a los/las alumnos/as que así lo requieran.

### JUUL
Proyecto con el que se induce y se impulsa la afición a la lectura.

### CONOCIENDO BERA
Los viernes a la tarde los/las alumnos/as de Educación Infantil salen a conocer el pueblo, costumbres y paisajes de Bera.

### BERTSOLARISMO
Este proyeco se desarrolla en colaboración con Bertsozale Elkartea. Trabajan la oralidad y la improvisación.

### OREKAZ
Proyecto de Educación Física en el que se respeta el desarrollo y ritmo de cada alumno/a. NO SE FOMENTA LA COMPETIVIDAD.

### PROYECTO LINGÜÍSTICO
Es el proyecto que da coherencia a la enseñanza de todas las lenguas utilizadas en la Ikastola. Tiene en cuenta todas las situaciones comunicativas que se desarrollan en todo el ámbito escolar y plantea y trabaja estrategias para las necesidades surgidas en cada una de ellas.

## 3 DEPARTAMENTO DE ORIENTACIÓN

El departamento de orientación surge para ayudar en el proceso educativo. Este departamento implica distintas actuaciones en el aspecto pedagógico, psicológico y vocacional. Está orientado a ayudar al:

### ALUMNO/A:
Ayuda a aquellos/as que tienen necesidades fonéticas. En los casos de dificultad académica, se diagnostica, se trata y se guía. Se ofrece un ambiente de trabajo cercano, discreto y basado en la confianza.

### PROFESOR/A:
Se le ofrece trabajar en conjunto las respuestas a la diversidad, la responsabilidad, adaptaciones curriculares, la tutoría. En general se le ofrece asesoramiento.

### PADRES-MADRES:
Se les ofrece un servicio de diagnóstico, para atender las necesidades específicas y la posibilidad de trabajar conjuntamente en los aspectos de la personalidad así como en el proceso académico. Servicio de logopedia. Un ambiente cercano.



## 4 PLAN DE FORMACIÓN

### PARA EL PROFESORADO
Todos estos proyectos implican unos ciclos de formación específica. Además la Ikastola Labiaga promueve y ofrece todos los años cursos para la actualización del euskara y de las nuevas tecnologías.

### PARA LAS FAMILIAS
**ESCUELA DE PADRES / MADRES**
A lo largo del año las familias participan en diferentes charlas y talleres de interés familiar.

# Servicios

**GOIZ TXOKOA-ZAINTZA**
Posibilidad de traer al niño/a a las 8:00 de la mañana a la Ikastola. En Educación Infantil, además, se ofrece este servicio a partir de las 12:40h.

**COMEDOR**
Comida elaborada en casa, en la ikastola. Menús adaptados a las necesidades de cada alumno/a. Vigilado. Se mantiene el servicio en junio y septiembre, de lunes a viernes, miércoles incluido.

**RINCONCITO DE LA SIESTA**
Después de comer tendrán opción a descansar antes de iniciar las clases.

**LA PÁGINA WEB, LOS BLOGS Y FACEBOOK**
Tanto la página web (**www.labiagaikastola.eus**) como los blogs son soportes al servicio de los/as alumnos/as y de las familias.
**Facebook: https://www.facebook.com/public/Labiaga-Ikastola**
**Blog: http://labiagaikastola.blogspot.com.es/**

# Deportes y actividades populares

La Ikastola Labiaga trabaja para impulsar la participación de los/las padres/madres y alumnos/as en las distintas actividades y en los deportes que se desarrollan en el pueblo, apoyando y colaborando con las distintas asociaciones de Bera:

**Escuela de Música, Manttale, Mugaz Gain, Gure Txokoa, escuela de deportes (balonces-to, fútbol, pelota, etc.), Lurraren eguna, Olentzero, cabalgata, carnavales, Korrika.**

# Actividades extraescolares

## PARA LOS/AS ALUMNOS/AS

### CAMPAMENTO DE INGLÉS
Oferta destinada a trabajar complementariamente el aprendizaje de la lengua extranjera, el Inglés. Todos los años se organizan en julio.

### TEATRO
Bajo la dirección de una especialista trabajan diferentes facetas relacionadas con el teatro: técnicas, la expresión....

### BERTSOLARITZA
Actividad orientada al conocimiento del bertsolarismo que es impartida por una bertsolari.

### FRANCÉS
Taller orientado al alumnado de Educación primaria. Está organizado con el fin de hacer la primera aproximación a la lengua de contacto que tenemos en Bera, el Francés.

### HIP HOP - FUNKY
Es una actividad destinada a alumnos/as de Primaria y Secundaria. Esta disciplina de la expresión artística del mismo nombre se trabaja con la ayuda de una especialista.

### OTROS TALLERES
Se ofertarán también otros talleres propuestos por padres-madres y guiados por ellos/as para reforzar la interacción con los/as alumnos/as: taller de cuentos, pintura...

## PARA MADRES-PADRES

### ZUMBA
Es un curso destinado a trabajar una nueva modalidad entre la danza y el aerobic.

### OTROS TALLERES
Se ofertan además talleres propuestos por madres-padres y guiados por ellos-as. Cocina, pintura, primeros auxilios, danzas vascas...

## PARA LAS FAMILIAS

### OTRAS ACTIVIDADES
Promover actividades representativas del patrimonio cultural vasco: Día internacional del Euskara, Olentzero, Santa Agueda, Lunes de carnaval (Zingar-arraultze)...